

Mus eta pilota txapelketak

Lan eta lan ditugu Euskal Giroa elkarteak. Ostiralean mus txapelketaren finalak jokatu dira eta igandean pilota txapelketa hasiko da. Horrez gain, elkarteak urrian 25 urte beteko dituzenez, liburuxka atera nahi du.

Sara Soria

Ohi bezala, Euskal Giroa elkartearen mus txapelketa oso arrakastatsua izan da: guztira, 90 bat bikoitek parte hartu dute. Asteazkenean final-erdiak jokatu ziren eta ostiralean, hilak 4, finala jokatu da, 20.00etan. Igande honetan, bestalde, II. Esku Pilota Txapelketa hasiko da. Partidak Herrerako frontoian jokatu dira igande goizetan, eta finalak San Luis jailetako egun handian, ekainaren 21ean izango dira. Añorga, Hernani, Intxaurren, Alzatarak eta Usurbil pilota edo kirol elkarteetako bina bi-



kotek parte hartuko dute: bata jubenil mailan ariko da eta bestea, kadeteetan.

25 urte

2003. urtea berezia da Euskal Giroarentzat. Izan ere, elkarteak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu udazkenean. 70eko hamarkada amaieran, emakumeak oso elkarte gutxitan sar zitezkeen eta ohitura

horrekin bat ez zetozen hainbat lagunek Euskal Giroa elkarte mistoa sortu zuten 1978ko urrian. Egun, elkarte-kide gehienak gizonak dira, baina zenbait emakume ere badira. Urte hauetan guztietan ekimen ugari bultzatu dituzte Euskal Giroa-koek auzoan, hala nola, gastronomia ikastaroak, bertso paper lehiaketak eta urteroko danborrada

Mendi irteera Nafarrora

Herrerako Mendi-Zaleak taldeak mendi irteera egingo du igandean, hilak 6. Mendizaleak Herrerako farmaziatik aterako dira 08.00etan autobusez Nafarroako Izpegi herrirantz. Bertatik, 1.306 metroko Auza mendira igo eta ondoren, Erratzura jaitsiko dira. Irteeran parte hartu nahi duten bazkideek 12 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, 14 euro. Izena emateko 943 391174 telefono zenbakira deitu behar da.

eta Euskal Jaia San Luis jailetan. Bestalde, kirolari dago-kionez, bolatokia berreskuratu dute (iaz Herreran jokatu zen Euskal Herriko Txapelketa) eta mus eta pilota txapelketak ez ezik, xake eta txirringularitza txapelketak ere antolatu izan dituzte. Horrez gain, hilean behin, mendi irteera egiten dute. Zilarrezko ezteien haritik, elkartekideek liburuxka kaleratu nahi dute, 25 urteotako historia laburbilduz.

Esku pilotako finala San Luis gunean izango da

OLIYOS
TABERNA - JATEETxea

Erregezainen kalea 4 • Tel.: 943 21 49 89

Alkandora
ARROPADENDA

Andia 1 Tel.: 943 42 03 49 DONOSTIA

MAGNETISTA NATUROPATA
Tel. (943) 623055 - San Marzial 7 - IRUN

ERREKUPERAZIOAK	IKUSMENA	GIHARRETAKO
- Diabetea	ERREKUPERATZEA	ARAZOAK
- Larruzaleko alergiak	- Begi nagiak	- Erreabilitazioa
- Asma	- Miopia	- Artrosia
- Buruko mina	- Hipermetropia	- Erreuma-artritisa
- Prostatisa	- Estrabismoa	- Lunbalgiak
- Birusak	- Begi-lausoak	- Lepoko mina
- Oinetako izerdia		

ORDUTEGIA:
Goizez: 9-13.
Arratsaldez: 14-19.
Aurretik ordua hartu

Zentru ez sanitarioa

Ballenero's
boutique

Baleazaleak 10
Tel.: 943 47 20 89
20011 Donostia